# ttipi-ttapa

1992.eko Azaroak 12 | 97. zenbakia | dohain banatzen da




argazkia: KARMELE




# ARGIA egutegia

ESKURATU NAHI BADUZU, **DONEZTEBE** ETA **LESAKA**KO **FERIETAN** AURKITUKO DUZU SALGAI

- Takoan joanen da
- Santutegia (euskarazkoa eta bestelakoa), ilargi, itsaso eta eguzkiaren datuak, txisteak, errezetak...
- Erosle bakoitzari egutegia zintzilikatzeko taulatxoa oparituko zaio

BERTZENAZ, DEITU ***TTIPI-TTAPA***REN 631188 Tfnora ETA BERTAN AURKITUKO DITUZU SALGAI

**IRAGARKI HAU 5.300 ETXETAN SARTU DA.**

**ZUREA ERE SARTUKO DA PUBLIZITATERAKO ttipi-ttapa AUKERATUZ GERO.**

non - zer


4 **AGENDA** Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.

7 **HONTAZ ETA HARTAZ**

8 **IRAKURLEAK MINTZO**

9/31 **HERRIZ HERRI**

Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Bertizarana, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta... Doneztebeko ferien koadernillo berezia.

32 **ERREPORTAIA:** Eskualdean osasungintzan ari den langilegoaren hirutik bat erdaldun hutsa da

Aitor Arozena

36 **KIROLAK:** Mikel Mindegiak lortu zuen Elizondon Nafarroako aizkolarien txapela.

38 **MERKATU TTIKIA**



*ttipi-ttapa*

HAMABOSTEKARIA

**Lege Gordailua:** NA-1324/85
**Tirada: 5.300 ale**

Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA
Tfnoa.: 63 11 88
Faxa: 63 12 91

**Erredakzio arduraduna:** Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karmele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Patxi Larretxea, Pello Apezetxea, Edurne Rekondo, Bittori Telletxea **Ale honetan parte hartu dute:** Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Jon Larretxea, Txema Aldabe, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Juainas, Koro Irazoki, Margari, Sara, Natalia, Txema Urrotz, J. Igarabide, Antton Erkizia, Juana Mari, Olhain Elkartea, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa, Josetxo Susperregi eta Mattari-k. **Argitaratzailea:** ***ttipi-ttapa*** **. Laguntzaileak:** Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Nafarroako Gobernua....
**Inprimategia:** Gertu Kooperatiba Elkartea (Oñati)


***ttipi-ttapa*** aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

## Beharrezko telefonoak

**SOS Nafarroa /Urgentziak**...088/061

**OSASUN ZENTRUAK**

Elizondo....452367 / 580235
Doneztebe....450300
Lesaka....637428 / 637336
Leitza....510248 / 510573

**KONTSULTAK**

Arizkun....453039
Gartzain....580451
Oronotz-Mugaire....592024
Ituren....450183
Sunbilla....450283
Goizueta....514067
Igantzi....637755
Arantza....634131
Bera.... 630929 / 630036
Etxalar....635105
Urdazubi....599130

**ANBULATORIOAK**

Irun....630264/621106

**OSPITALEAK**

Irungo ospitalea....614600
Nafarroako ospitalea....102100
SSko urgentzi zerbitzua....246750
Virgen del Camino erresidentzia....109400
Gurutze Gorria....226404

**ANBULANTZIAK**

Oitz....450242/450342

**DYA**

Lesaka (larrialdiak)....(943) 464622
Doneztebe (larrialdiak)....171717

**FUNERARIA**

Lesaka....637404
Elizondo....580924

**SUHILTZAILEAK**

Oronotz-Mugaire....592044

**GARRAIOAK**

Bidasotarra....630279
Baztanesa....580129
Leitzaran....515018

**HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK**:

Elizondo....580730
Lesaka....637154
Bera....630261

**ABERIAK:**

Iberduero....450335/450336

## Botikak

**Azaroaren 14-15ean**, Etxalar, Doneztebe eta F. Iturralde (Elizondo).

**Azaroaren 21-22an**, Bera, Ituren eta F. Elizalde (Elizondo).

## Deialdiak

**ARANTZA,** azaroaren 12an, Euskara Batzordearen bilera.

**BERA,** azaroaren 19ean, Bortzirietako Euskara Mankomunitateko Aholkularitza Batzordearen bilera.

## Ekitaldiak

**BORTZIRIAK**

ANTZERKI IKASTAROA

Hamasei urtetik gorakoentzat.

**Non:** Berako Kultur Etxean, Irungo *'Bai'* elkartekoek emana.

**Apuntatzeko:** Deitu 631186ra (Itxaso).

Bilera azaroaren 13an arratsaldeko 6etan Jamotenean.

## Feriak

**DONEZTEBE,** azaroaren 13an, azienda feria, bertsolariak, pilota partiduak...

## Musika

**ELIZONDO**

FOLCK AMETSETAN

Hiru Folck musika saio hiru talderen eskutik hiru egunez segidan.

**Non:** Elizondoko *'Casino Circulo de la Union'*en arratsaldeko 8etan.

**Zer-noiz:** azaroaren 13an *«Catalonia»* taldea; azaroaren 14ean *«Jaleo»* taldea eta azaroaren 15ean *«Merekum'b»* taldearekin.

## Bota bertsoa



**Mikel ALTZUART**

**Gaia:** Euria eta euria

**Doinua:** Betroiarena

Urri hilabetea
udazken sarrera
eguzkiak ia ez du
indar berbera
hosto eta fruituak
badatoz lurrera
benetan ederra da
zure izakera
euria gainbera
da aurtengo era
ia nazkatu gera
a ze portaera!
San Martineko uda
nora joan zera?

Ona ez zatozenean
oihuka gu beti
noiz etorriko zaren
denok kezkati
orain berriz aseak
bait gaude ederki
aurtengo udazkena
zuretzat izaki
arreta eduki
gehiago ez jaurti
eguzkia jeiki
ta aunitz hobeki
azaroak argitzen
ongi baleki.

## Erakusketak

MARRAZKI BIZIDUNAK

**LESAKA**

Azaroaren 9tik 13ra marrazki bizidunen erakusketa Irain eskolan KIMA taldearen eskutik.

**Antolatzailea:** Lesakako Euskara Batzordea.

## Zinema

**DONEZTEBE**

Azaroaren **14-15ean**, *"Los reyes del Manbo cantan canciones de amor"*. **21-22an**, *"Dos duros sobre ruedas"*

**LEITZA**

Azaroaren **13an** 10,30etan eta **15ean** 8etan, *"La mano que mece la cuna"*. **15ean** 5etan *"Los tres pequeños Ninjas"*. **20an** 10,30etan eta **22an** 8etan, *"El principe de las mareas"*. **22an** 5etan *"El Rey del Sol"*.

## Gastronomia

### ESNE TARTA

**Osagaiak 6 lagunendako:**

Tarta batentzako hojaldrea, 400 c.c. esne bero, 60 gr. azukre, bi goilare irin, goilare bat maizena, gurina bertze bi, bi arraultzeren gorringoak eta zuringoak, banandurik eta ongi irabiatuak, gatza pittin bat, kanela eta zukrea apaintzeko.



Maria Jesus ERRAZKINek emana - LESAKA

Esnea berotu baina irakin gabe. Nahasi ura, gatza, irina, maizena eta esnea poliki-poliki gehitzen zaio dena batituz. Berriro dena kazulara botatzen da eta egosi loditu arte, baina dena ongi mugituz. Sutik kendu, gurina eta azukrea gehitu, hozten utzi eta gorringoak bota. Azkenik, zuringo harrotuak poliki gehitu. Goilare batekin kristalezko moldea betetzen da, lehendik hojaldrearekin tapatua, labean 25' sartu eta azukre eta kanelarekin apaindu.

## Baserriko feria

**ZERRIKIA**

**•Zerrikumea** (20 kilokoa): 4.930 pzta. **Zerri gizena** (95-100):141 pzta/kilo **Zerramak**: 95-100 pzta./kilo bizirik.

**BEHIKIA**

**•Aretze gizenak:**

**Idixkoak**: Pzta/kg. Kanal

Extra....................540
1.koa....................510
2.koa....................480

**Urruxak**: Pzta/Kg. Kanal

Extra....................560
1.koa....................530
2.koa....................480

Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

**•Behi zaharrak:**

Behi nabar gizena: 330 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 380 Pzta /Kg. Kanal.

**•Aretze ttikiak** (15 egun inguru):

**Nabarrak:** urruxak 15.000 eta idixkoak 23.000 Pzta.

**Mestizoak:** urruxak 25.000 eta idixkoak 35.000 pzta.

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa

MALDAERREKA S.A.
«La Suiza»
Aseguro mota guziak
Bittiria karrika -Tfnoa: 637404- LESAKA

LEGARRA
PAPERTEGIA
TABAKOAK
LIBURUAK
OPARIAK
Legarrea 9, Tfnoa: 637030 LESAKA




• Diskoak,
• Metodoak,
• Musika-Tresnak,
• HI-FI soinua,
• Soinu Profesionala,
• Ekipoen Alokairua...

## 11 galdera llabur



**Marta Etxegia**
Malerrekako Euskaltegiko eta Xorroxin irratiko langile

**Zer nahiago, irratian musika ala elkarrizketak?** Musika nahiago baina elkarrizketak beharrezkoak dira.
**Trikitixa ala reggae?** Reggae.
**Emakume femeninak ala feministak?** Emakume femenina feminista.
**Bisera ala sonbreroa?** Zapel guziak gustatzen zaizkit.
**Irratian, haurrekin jokoak ala herrietako berriak?** Adin guztietako jendearekin tratatu behar duzu.
**Lagun haundinak, mutilak ala neskak?** Haundina-haundina bat bertzerik ez dut eta neska da.
**Hemengo mutilak ala hiritarrak?** Aunitz ikasi beharra batzuk eta bertzeak.
**Mutila zuk ligatu edo berak zu?** Ahal izanez gero, nik.
**Amaren etxean bizi ala kanpo?** Amaren janaria hagitz ona, baina kanpoan bizi.
**Denbora librea, lagunekin ala bakarrik?** Nere animoaren arabera.
**Ikasketak ala lana?** Lanean ikastea.

## Zinema

**1492, la conquista del paraiso**
Ridley. Scott
1992


Gérard Depardieu eta Fernando Rey

Hasiera batean pelikula honen proiekzioari Expo-ak egin zion boikota nolabaiteko ikusmin polemikoa sortarazteko lagungarri izan dela ezin da ukatu. Eta aspektu honi bertze bat ere lotu behar zaio; "Thelma eta Louise" lanarekin Scott-ek izan zuen arrakasta takilleroa.

Pelikula hau egiteko, halere, europear koprodukzio eskuzabal baten laguntza izan du eta emaitza modura, filmean errealizadore honen hoberena eta exkasena biltzen dira.

Gertakizun historikoei gordetzen zaion fideltasunaz gain, benetan ikusgarria da lehen zatia. Honen garapen edo eboluzioak ordea, zapuztu egiten du hasieran sortutako espektatibak.

Bikaina da dena dela Depardieu aktorearen lana eta baita, filmean ikusten den fotografia eta Scottek hain ongi menperatzen dituen efektu bisualak.

Negatiboaren aldetik aldiz, beharbada filma luze xamarra gertatzea eta zenbaitzutan musikarekin akzioa bera gehiegi azpimarratzea.

JOXE

ZIZKA OSTATUA
Martxa eta mozkor saltsa
Altzate 28 - BERA

CLAAS S. Semper
SAME Nekazal Tresneria
Salmenta eta konponketa tailerra
Ergoien auzoa, Tf.: (943) 490619 - OIARTZUN
BERAn, 631238Tfnoan, Agerra Industrialdean

LIBURU BILDUMEN BANATZAILEA
IKASTOLA, ESKOLA, ELKARTE ETA
KULTUR ETXEETAKO
LIBURUTEGIAK OSATZEKO
BEHAR DIREN BILDUMAK
AMETS LIBURUAK
☎ 63 12 67 - BERA

TXOKO erretegia
Bazkari, afari eta gosariak
ITUREN - Tfnoa: 45 04 91



**Doneztebeko** feriak edo merkatu egunen txanda izanen da azaroaren 13an, eta dudarik gabe, eguraldia sobera gaiztotzen ez bada bederen, jende pila ederra bilduko da Doneztebeko karriketan hau begiratu, hura ukitu eta... bertzea erostera. Elizondoko ferietan egin bezala, honetan ere Doneztebeko Feriei buruzko gehigarria duzue erdialdeko orrrialdetan.



**Andoni Elosegi Lanz** 22 urteko gazte Beratarraren gorpua aurkitu zuten azaroaren 1ean, igandea, arratsaldeko 6ak aldera istripua izan zuen lekutik 660en bat metrotara. Gogoratu, istripua larunbat eguerdi aldera gertatu zela Igantziko Bentetako presan, Andoni eta bertze 5 lagun Zodiac batetan Bidasoa Villanueva pareraino jausteko asmoarekin abiatu ziren Igantziko Bentetatik.

# Xorroxin Irratia: «Berrikuntza prozesu batetan sartuko gara»

*Antolaketa eta teknika mailakoak izanen dute lehentasuna*



*"Berrikuntza teknikoak egin nahi ditugu* –dio Joseba Igarabide, Xorroxin Irratiko lankideak–, *estudio berria antolatu, grabaketa estudioa... eta emisorean ere hobekuntzak egin, hobeki eta gehiago zabaltzeko"*. Dena dela, gisa honetako berrikuntzak aintzinerat eraman nahi direnean ez da nahikoa jende eta udalen 'laguntza borondaterekin', *"dirua ere beharrezkoa da"*.

Baztango Udalak ez die oraindik orain bere bizian inoiz pezeta bat ere eman diru-laguntza modura, eta bertzerik ezean, *"bi sari eder eskeintzen duten 2.000 errifa atera ditugu salgai eta urriaren 31an Erratzun kontzertua antolatu genuen behar beharrezkoa dugun diru hori eskuratzeko"*.

**INFORMAZIOA:**

- Nominak
- Aseguro Sozialak
- Lan-kontratu bonifikatuak
- Enpresa berrien sortzea
- Diru-laguntzak
- Errenta Deklarazioak
- Kontabilitateak

**ARTEKARI S.L.**

ASESORIA FISKAL ETA LABORALA

**KONTSULTAK, AINTZINETIK ORDUA ESKATUZ**

**LESAKA:**
- Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
**Non:** MALDAERREKA S.A., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

**IRUÑEA:**
- Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L, Tfnoa: 17 55 40
**Non:** Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.



## AZARO ANTIMILITARISTA

Badirudi, egun hauetan, militarrek intsumisioari ez diotela treguarik eman nahi. Hortxen ditugu adibidetzat Nafarroan irailaren 17 eta 23an izandako epaiketak eta oraindik ere urtea akitu baino lehen, azaroaren 5ean eta abenduaren 9, 10 eta 11n izanen direnak.

Intsumisoen kolektiboa haustea da epaiketa hauen xedea. Lehen, jokamolde bera erabili zuten objetoreekin, batzuk amnistiatuak izan ziren bitartean bertzeak zigortuak. Orain ere kontu berarekin datozkigu. Intsumiso batzuk gartzelan dauden bitartean bertzei beteko ez duten gartzela zigorra ezartzen zaie.

Hauxe da «legearen berdintasuna», «delitu» bera egin duten «gaizkileak» modu desberdinean zigortu.

Honen aintzinean intsumisoen kolektiboaren batasuna beharrezkoa da, baita ere gizartearen elkartasuna hauekiko.

Militarrek treguarik ematen ez dutenez guk ere gure eskualdean haiei treguarik ez ematea erabaki dugu.

*Azaro Antimilitarista* da gure bake aldarrikapena.

Hilabete honetan intsumisioa eta antimilitarismoa zabaltzeko zenbait ekitaldi antolatu dira, denetik pixkat, hitzaldiak, erakusketak eta, nola ez, rock jaialdi intsumisoak.

Ekintza guzi hauetara gonbidaturik zaudete, ea denon artean Gobernuak luzatutako gerra aldarrikapenari aurre egiten diogun.

*Epaiketarik ez, Intsumisioa*

Zugarramurdi, Baztan-Bortzirietako Talde Antimilitarista

## MENDAURKO MARKA HOBETZEKO NORBAIT PREST?

Mesedez nahi nuke adieraztea, Mendaurko joan etorriaz norbaitek nere 65 minututako marka hobetu nahi badu datorrela luzatu gabe, prest nago bidea erakusteko eta zerbaitetan laguntzeko. Badakit maila onekoek hobetzen ahal dutela erraz, bainan arras gogorra da. Nere kondizio berdinak betetzen dituenak eta marka hobetzen duenak izanen ditu marka, trofeoa eta bazkari eder bat. Zorionak eta eskerrik asko.

Tomas Telletxea
Arantza

EKAITZA
OSTATUA

Altzate - BERA

MARI LUZ SPORT
ESTETIKA SOLARIUM
GIMNASILEKUA
Eztegara 17, Tfnoa: 63 04 83 - BERA



Zein da Bidasoa - Leitzaran aldean gehien irakurtzen den prentsa?
*ttipi-ttapa*, noski.
Beraz, zure publizitatea *ttipi-ttapa*n.
**Inbertsiorik onena**



MOLINERO
PINTURAK
Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio problemak moldatuko dizkizugu eta gainera, barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoen araberako prezioetan.
Eztegara 19 - ☎ 63 02 40
BERA

# Arrakasta osoz burutu dira udazkeneko Kultur Egunak

Bertso saioak, erakusketak, VI. Lurraren Eguna, II. Perretxiko Ihardunaldiak...

JOXEMANUEL IRIGOIEN

Urriaren 15ean *'Musika Gaur'* izeneko Mahai-inguruarekin hasi eta azaroaren 7an *Bera eta Altsasuko Abesbatzaren* saioarekin bukatu bitarte, aktibitate ugari burutu dira Beraldean Kultur Egunen barnean. Kultur Etxea jendez bete zen urriaren 24ean Bertso Paper Lehiaketaren Sari banaketa eta segidan Bortzirietako Bertso Eskolakoek eskeini zuten saioa ikusteko.

Eguraldia lagun zuela, VI. Lurraren Eguna arront jendetsua suertatu zen. Gasna Lehiaketa Berako Zigardibehereko gasnak irabazi zuen. Bigarren saria Berako Joantzenekobordakoak eta hirugarrena Etxalarko Isidro Ariztegik.

II. Perretxiko Ihardunaldian bi hitzaldi eta perretxiko bilketa eta erakusketa burutu ziren.


Joxemanuel

*57 eskulangile, 14 baserrietako barazki eta 13 gasna ale presentatu ziren VI. Lurraren Eguneko Erakusketa eta Lehiaketa ezberdinetan*

## Nafarroako Museo Etnografikoa herrian ez kokatzeagatik protesta azaldu du Udalak

Nafarroako Museo Etnografikoa Iratxeko monastegian paratzeko asmoa dagoela prentsa bidez jakin ondoren, ekimen hau geldiaraztea eskatu dio Udalak Kultur Zuzendaritza Orokorrari.

Izan ere, Udalak hainbat gestio eginak zituen Museoa Beran kokatzeko eta Caro Baroja familia izan omen da museo honen bultzatzaile nagusia, Beran egiteko asmoa behin eta berriz azalduz. Hau dela eta, Udalak protesta azaldu dio Kultur Zuzendaritza Orokorrari, Nafarroako Gobernuarekin izandako solasaldi ugariak ere kontutan hartuz.

**ttipi-flash**

❒ **Andoni** Elosegi 22 urteko gazte Beratarraren gorpua aurkitua izan zen Domisaindu arratsaldeko 6ak aldera istripua izan zuen Zerunetako presatik 500 metro behitiago. Bidasoa haunditua heldu zenez, buzeatzaileak 30 ordu behar izan zuten gorpua aurkitzen. Zodiac-ean zeuden 6 gazteen asmoa, Igantziko Bentatik Villanuevaraino jaustearena zen.

❒ **Jose Maria Goikoetxea** Berako apezak Tolosako Abesbatzen Topaketan haurren abesbatzentzako konposizioan lehen saria eskuratu zuen *"Katalin txiki"* izeneko lanarekin. Iaz ere lehen saria eskuratu zuen lehiaketa berean.

❒ **Maastricht**-eko tratatuari buruzko erreferenduma eskatuko du Udalak.










## LESAKA

# V. Dantzari Txiki Eguna ospatu zen Urriaren 25ean

Denetara 230 haur eta 50 txistularik parte hartu zuten

AITOR AROZENA

Irain Dantza taldeak bortzgarren urtez antolatzen zuen Dantzari Ttiki Eguna ospatu zen Urriaren 25ean. Bertan parte hartu zuten taldeak, Goizuetako Umore Ona, Sestaoko Salleko, Zarautzko Mollarri eta Bergarako dantza taldeak izan ziren, herriko Tantirumairu eta Irain taldeekin batera. Egun guzian zehar ikuskizun bikaina eskeini zuten, 230 dantzariek eta 50 txistulariek karrikaz karrika ibili bait ziren goizetik eta bazkalondoren jaialdia izan zen frontoian.



*Iaz baino talde guttiago izan baziren ere, giro ederra izan genuen aurten ere Dantzari Txiki Egunean*

### Marrazki bizidunen erakusketa

Hilaren 9an hasita 13a arte, Kima taldeak marrazki bizidunei buruz antolatzen duen erakusketa ekarri du Lesakako Euskara Batzordeak. Erakusketa Irain eskolan ikus daiteke, goizeko 9etatik 1ak arte eta arratsaldeko 2,30etatik 4,30etara eskola eta ikastolako haurrentzat, eta arratseko 6etatik 8etara nahi duen edonorentzat.

Erakusketa honetan marrazki bizidunak nola sortu eta egiten diren erakusten da, hasiera-hasieratik bukatu arte.

### Jubilatuen Eguna

Hilaren lehen egunean ospatu zuten «San Fermin» jubilatu elkarteko kideek beraien eguna.

Santu Guzien eguna zela probextuz meza batekin hasi zuten eguna, aurten hil diren kideen omenez. Ondotik, bazkaria Kasinon, Garmendia, Azpillaga, Lazkao-txiki eta Arozena bertsolariekin. Azkenik, dantzaldia izan zuten Beti Jai taldearekin.

### ttipi-flash

❒ **Lekarotzko** ikastetxean irakasleak falta direla eta egoera lehenbaitlehen moldatzea eskatu dio Udalak Nafarroako Gobernuari, Guraso Elkartearekin bat eginez.

❒ **Maastrichteko** tratatuari buruzko erreferendumaren aldeko mozioa, HBk aurkeztutakoa, kontrako botoa jaso zuen azken plenoan. PNVk aurka botatu zuen, Udaletxea horrelako kanpaina egiteko toki egokia ez dela erranez. EAko ordezkariek berriz, erreferendumaren aldeko jarrera azaldu ondoren, batek kontra botatu zuen eta bertzea abstenitu egin zen.

❒ **Bertso afaria** izanen da Koxkonta jatetxean hilaren 21ean. Bertan Lizaso eta Mañukorta arituko dira bertso kantari. Txartelak salgai daude Koxkontan.

LORA DENDA
TXIRULA
Bitiria LESAKA
Loradenda, bitxikeriak, opariak, eskulangintza
Bittiria, Tfnoa: 62 75 42
LESAKA

IRUBIDE
OSTATUA
ERRETEGIA
Tfnoa.: 63 71 27 LESAKA

XATURETXEA
FONDA
Tfnoa.: 63 70 27 LESAKA


* KIXKUR *
ILEAPAINDEGIA
Bittiria Tfnoa.: 637429 - LESAKA

EROSLE
LESAKA
Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena
Frexkuena zugandik hurbilago
Bittiria 67 – Tfnoa:637264

ETXALAR

# Udalak Zahar Etxekoa ez dauka argi

## Zortzi lagun baino gehiagorentzat tokia prestatzea nola ikusten den galdetu du

PELLO APEZETXEA

Larraburuan bizi diren herritarrek berogailu edo estufa elektrikoak erabiltzen dituzte negualdiko hotza gainditzeko. Azpian, jubilatuen biltokian, ur berozko berogailuak paratuak daudenez, goiti luzatzen ahal direnak, negu honetarako kalefakzione hori goian paratzeko proiektua presentatu da Udaletxean. Orain arte bizileku batean daude zaharrak, baina bertzea ere prestatzea komenigarri iduri du, emazteki eta jende gehiagorentzat behar balitz ere. Prestaketa horrek gastu ttikia suposatuko luke, hor beti maestra bizitu delako eta ongi zaindu. Horrez gain, Larraburuko baratza aldera pasabidea eta bertan egoiteko zenbait moldaketa egitea proposatu ditu Zahar Etxeko Komisioak. Denetara, bi milioi t'erdiko gastua suposatuko luke.



*Dena makinaz egiten den denbora hauetan, gero eta zailago zaigu zura edo harria eskuz lantzen ikustea, Teodoro Iribarren teilaturako zurak prestatzen ari den bezala*

Arg.: PELLO

Udalak onetsiz gero, Iruñera igorriko litzateke presupostua, Gobernuak erdia bederen ordainduko duelakoan, orain arte egin duen bezala. Udalak, ordea, gauzak gehiago pentsatu behar direla eta, momentuz bazterrean utzi du proiektua. Zera alegia: ez ote den ba zortzi lagun baino gehiagorentzat tokia prestatu beharko, eta horretarako Bortzirietako Zerbitzu Sozialei eta Gobernuari gauza nola ikusten duten galdetzea erabaki du.

### Herriak ematen duen su egurra ...

bakoitzak berak hartu eta erre beharko du, erran nahi baita, ezin zaio bertze jenderi utzi edo eman. Eskatu eta eramaten ez duenari, berriz, ondoko urtean ez zaio emanen.

«U S O A»
NEKAZARI KOOPERATIBA
Ganaduarentzat pentsurik egokiena
Tfnoa: 63 52 14
ETXALAR

EKAITZA CAFE
GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA
Lagunekin elkartzeko toki egokia
Tfa: 948 - 627547
Plaza Berria 13 - LESAKA

ARRATZUBI
ardotegia
Tfnoa.: 63 72 79
Bittiria karrika - LESAKA

KOSKILLA
OSTATUA
Larunbatetan mus txapelketak sari ederrekin
Zarandia 4 - LESAKA

KOXKONTA

Sagardotegia
Erretegia
Ezkontza, bataio, bileratarako leku egokia (200 pertsona)
Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - LESAKA

ARRANO
OSTATUA
Legarrea – LESAKA

## IGANTZI

# Elizaren inaugurazioa Urriaren 4ean egin zen

### 657.000 pzta jaso dira «Principe de Viana»tik aldarea eta erretabloak moldatzeko

OSKAR TXOPERENA

Aspaldi xamar aipatu beharrekoa zen elizaren inaugurazioaren berria, baina berriemale honen erruz ez da hemen lehenago aipatu.

Urriaren 4ean izandu zen ospakizun hori, meza eder bat eta ondotik hamekatako bat izandu zelarik herritar guzientzat. Baita ere jakin dugu 657.000 pzta hartu direla «Principe de Viana» erakundetik, aldareko eta bazterretako erretabloak moldatu ahal izateko. Honekin aurrekontua erabat borobildu da.



*Barrenetik garbitu eta pintatu egin da Piedadeko ermita, auzotarren laguntzarekin*

Argazkiak: OSKAR



*Urriaren 29an Urrezko Ezteiak bete zituzten Florentino Gonzalez Baztarrika eta Joxepa Lar Arretxeak. Senarrak 88 urte ditu eta 79 berriz emazteak. Familiko besta Azaroaren 8an egiteko utzi zuten. Bertze hainbertze betetzeko osasuna izan dezatela. Zorionak.*

### Piedadeko ermitan moldaketak

Egin da baita ere azken aldi honetan Piedadeko ermita txukuntzeko lanik.

Barrenetik garbitu eta pintatu egin da eta bertako auzotarrak izandu dire gehien bat parte hartu dutenak.

❐ **Igantziko mountain-bike** taldeak berriro zozketatu du bizikleta. Oraingoan zenbakia 2.620 da. Oraingotik sariturik agertuko ez balitz seguraski bizikleta saltzera aterako dutela erran digute.


SAROBE okindegia



SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

BOAN TAILERRA

CITROEN Banatzailea

KOTXE BERRIEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA

Herriko Etxeko Plaza - BERA

KIROLAK ZELA

Altzate 6, Tfnoa: 63 05 98

BERA



KATTU

OSTATUA

JATETXEA

- Karta
- Eguneko menua

Matxinbeltzenea, Tfnoa: 62 75 73 LESAKA

ETXEGARAI BIDEO KLUBA

Telebista eta Bideoak
Antena kolektiboak eta banakakoak
Konponketa tailerra

Eztegara 4, Tfnoa: 63 05 70 - BERA

Errekalde ostatua

Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630259 - BERA

ARANTZA

# Mutilen Herri Kirol taldeak lortu zuen finalean sartzea

Neskek ez zuten suerte haundirik izan eta ez ziren sailkatu ez sokatiran ez konbinadan

MIRARI eta MARTA

Berriozarren Azaroaren 1ean egindako herri kirol kanporaketan, hogei urtetik behitiko mutilen taldeak bakarrik lortu zuen finalerako klasifikatzea, bai sokatiran eta bai konbinadan. Azken honetan nahiko larri, epaileekin halako bronka bat izanez (txokor bat gaizki jarria zela eta...), ondorioz segundu batzuk galduz. Nesken taldea ez zen nahi bezain ongi aritu eta ez zen klasifikatu ez batean eta ez bertzean. Iritziak galdetzerakoan, zera erran digute:"*zorte txarra, inoiz fallatzen ez dugun gauzetan fallatu dugu. Arpanan bitan hautsi zaigu kortea, nahiko denbora galduaraziz*".


ARTXIBOA
*Hogei urtetik behitiko mutilak finala jokatu zuten asteburu honetan*

## EPA ikastaroak

Nafarroako Gobernuak antolatutako EPA ikastaroetan, ingles klaseak bakarrik lortu dira. Jostun eta sukaldaritzakoak jende faltagarik ez dira emanen.

## Putzu beltzak

Iturberri eta Lopenekobordan dauden putzu beltzen egoera kaxkarra ikusirik, beraiek moldatzeko dirulaguntza eskatu dio Udalak Nafar Gobernuari.

## Solfeoa

Eskolako haurrei solfeo erakusteko 331.700 pztako aurrekontua onartu du Udalak.

## Baxterrenea erortzeko punttuan

Baxterrenea etxea erortzeko arriskuan dagoela eta Udalak konponbide bat aurkitu nahiean dabil. Dirulaguntzaren bat lortzen bada moldatuko da, bertzela bera erosteko gogoa agertu duen herritar bati salduko litzaioke.

## Aurrera dantza taldea hilaren 29an

Udazkeneko Jira-biraren barnean Leitzako Aurrera dantza taldea arituko da azaroaren 29an, 12etan.

ZALAIN JATETXEA
Eguneko menua eta karta
Boda eta banketeak ematen dira
Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06 BERA

GOYA
JOSTAILUAK
JANTZIGINTZA
OPARIAK
BURDIN TRESNERIA
Altzate, 5 Tfnoa: 630083 BERA

KUXKA

Legia 11 - 63 06 64 BERA

ORDOKI
ALTZARIAK
Estilo guztietako mobleak
ERAKUSKETAK:
Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26
SALMENTAK: Plaza Zaharra 27
Tfnoa: 637034 - LESAKA
Larunbat arratsaldetan zabalik


ERAKUSKETA:
BEREAU ETXEA
LESAKA NAFARROA
Telf: (948) 637266
BORTZIRI
«UNSION ANAIAK»
SUKALDERAKO ALTZARIAK

## SARA

# Pilota eta Rugby eskolek lanari ekin diote

Nahiz batean zein bertzean gaztetxo andana dute bildu

OLHAIN ELKARTEA

***Pilota eskola:*** 6 eta 10 urte arteko haurrak dituzte beren gain hartzen.

***Esku uska:*** asteazken eta larunbata arratsaldez 2-4ak artean, kirol aterbean. Berrogoi bat haurrek jarraitzen dute erakaslea dutela Guy Thibault jauna.

***Joko Garbi:*** asteazken eta larunbata arratsaldez 4-6ak artean kirol aterpean. Erakasleak Ttotte Delpech, Mattin Jorajuria eta Caludi Guerobe jaunak ditugu.

Hamar urtetarik goitikoek xapelketan parte hartuko dute. Holaxe sailkatuak dira mementoko:

- Xitoak: 2 bikote
- Gaztetxoak: 2 bikote
- Minimes: bikote bat



*Añimaineko Bestak-92*

- Cadets: 2 bikote
- Juniors: bikote bat
- Helduak: bi bikote

Erakasleak Mariluz hiru anaiak, Mattin Arrieta eta Pantxo Berecoetchea. Lehen partidak azaroak behar litaizke jokatu bainan hauen ondorioen berri emateko parada ukanen dugu gogotik ondoko ***ttipi-ttapa***tan.

### Rugby

Lehen taldeak urriaren 4ean Puyoo herrian galdu zuen Sarak 15 eta 19. Urriaren 11an Saran Sarako Izarrak garraitu zituen Grenade herriko rugbilariak 28 eta 12. urriaren 25ean Habas herrian Saratarrak galtzaile atera ziren 9 eta 24. Bigarren taldeak ez du oraino jokatu.

***Rugby eskolak*** larunbata arrtsaldez 2-4ak artean Añimaineko zelaian biltzen ditu 25 bat haur. Arduradunak dira: Martin Goienetxe, Jean Marie Pradére, Gratièn Barreneche, Jean François Iribarren, Jean Philippe Amorena eta Bruno Martin.

❒ **Herriko Etxeko Edantegi**ko jabeek jakin arazten dute azaroaren hastapenetik eta hilabete guzian ostatua etsirik egonen dela egitekoak diren antolaketa lanengatik.

LAINO
AZAROAN
%20KO DESKUENTOAK
San Esteban 37, Tf: 631063 - BERA

BOTXO
ostatua
Tfnoa.: 63 00 52
Zalain auzoa, BERA

GAZTANDEGIA
Etxeko Ardi Gazta
Lizun
Petxenekoborda
Tfnoa: 45 08 62
SUNBILLA

ZURE BIDAIAK, ZEURE NEURRIAN ANTOLATUTAKOAK
ERRO BIDAIAK
✘ HERRIAK
✘ MENDIAK
✘ TURISMOA
✘ TREKING eta
BIDAI ALTERNATIBOAK
BIDAI AGENTZIA
G.A.T. 2.015
ADUANA KALEA, 5
☎ 943 - 615177
☎ 943 - 619489
FAX 943 - 619517
20.300 IRUN

12
Ostatua
Ameztia 12, Tfnoa.:450153, DONEZTEBE

BEINTZAkoOSTATUA
Tfnoa: 45 00 14
BEINTZA-LABAIEN

IBARROLA
HAURRENDAKO ARROPA - MERTZERIA
Parrokia 6, Tfnoa: 45 04 63 - DONEZTEBE

## SUNBILLA

# Neskak eta hogei urtetik behitiko mutilak finalean

Elizondon jokatzekoa zen pasa den igandean Nafarroako Herri kirol txapelketa

IOSUNE eta IXABEL

Azaroaren lehen egunean burutu zuten Sunbillako hogei urtetik behitiko mutilen taldeak eta nesken taldeak herri kirol txapelketako kanporaketa Berriozarren. Sub-20 taldea goizean aritu ziren, froga konbinatuan bigarrenak gelditauz eta finalerako txartela lortuz. Sokatiran, berriz, harritzekoa bada ere, ez zuten talderik aurkeztu.

Arratsaldean neskak aritu ziren sokatiran eta bosgarrenak gelditu ziren, finalera pasatuz. Konbinadan berriz, lehenbizikoak gelditu ziren, kanporaketan, joan den asteburuan Elizondon jokatu behar zen finalerako txartela lortuz.



*Bariantearen obrak direla eta antxoa fabrika bota dute dagoeneko. Urtean zehar 10 lagunentzako lana izaten zen bertan*

Arg.: KARMELE

## Errekalde karrika moldatzea

Errekalde karrikaren saneamendua egin eta zola berritzeko asmoa azaldu du Udalak 1993-95 urteei dagokion Hirurteko Planean

## Euskara udalean

Euskara ikasteko kurtsilloa eginen du idazkariak datorren urteko lehen sei hilabetetan. Jose Mª Iriarte zinegotziak ere, euskalduntze plangintzan sartzeko borondatea erakutsi zuen.

❐ **Taxi Karlo** taldearekin rock kontzertua izan zen hilaren 7an.

SANTAMARIA
Jatetxea
Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneroko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



Titare
Arropa polita
Udazken eta negurako
San Migel auzoa 27,
45 08 83 - DONEZTEBE
ARROPAK

BELARRA Kafetegia
Plater konbinatuak
Ameztia 3, Tf.: 45 03 06 - DONEZTEBE

MENDI HOTELA



DONAMARIAKO BENTA
Jatetxea
Tfnoa: 450925 / 450708 - DONAMARIA

## DONEZTEBE

# Arkupeak elkartearen lokalak Herriko Etxe zaharrean

Azkarreta etxea Herriko Etxearena izatera pasa daiteke

TXEMA ALDABE

Doneztebeko Udalak, Arkupeak eta Ongizate sailak izandako bileren ondorioz eman da erabaki hau. Jakina da Arkupeak "Patronato Azkarreta" delakoak duen etxea (garai batetan eskola) nahi zuela beretzat baina azkenik Udaletxe zaharreko bigarren solairuan eginen dira berak behar dituen bulegoak. Oroiterazi behar da etxe honen behekaldean izanen dela Jubilatuen egoitza. Bulego hauek egiteko izanen den kostoa Arkupeak elkartearen gain izanen da.

Bertzalde, Azkarreta etxea Udalarena izan dadin Gobernuarekin gestioak eginen ditu Udalak.

### Doneztebe orain dela 800 urte

Guttik pentsatuko zuketen garai hortan Doneztebe herria bazegoenik.



*Herriko Etxe zaharreko bigarren solairuan eginen dira Arkupeak elkartearen bulegoak*

Arg.: JOXEMANUEL

Ba bai, hala da, orain dela 800 urte Nafarroako erregea zen Sancho VIak fueroak eman zizkion herriari. Hori dela eta, Santa Luziari egokitzen zaion asteburuan, abenduaren 12 eta 13a, asteburu kulturala antolatuko da. Dagoeneko bi lagun datoak biltzen ari dira hitzaldi bat emateko, fueroek zer eragin izan zuten eta garai hartan nola bizi zen jendea azaltzeko.

### Ituren, Elgorriaga eta Donezteberako kolektorea

Depuradora egiten hasi zenean ez zen kontutan hartu San Migel auzoko parte bat sartzea. Baina gero, NILSA, afera hau eramaten duenarekin solastu ondoren eta ikusirik Ituren eta Elgorriagak depuradorarik ez zutela, bidezkoa ikusi da Doneztebeko depuradoraraino bideratzea bi herrien eta Renault aldeko ur zikinak. Doneztebeko depuradorak kapazidade aski izanen omen du denontzat. Kolektorea edo ur-zikinen bidea egitea oso osorik subentzionatua egonen litzateke. Egitearen kostoa 80 milioi ingurukoa izanen litzateke.

❒ **Zine** denboraldirako langileak, Arantza Saldias, Marisol Arraztoa eta Santi San Miguel izanen dira.

❒ **Gaztain** jatea eta sagardo edatea eginen da Malerrekako Euskaltegian (IKA) azaroaren 12an arratsaldeko 7etan. Ale hau hartu bezain abudo euskaltegirako bidea hartu. Denak gonbidatuak zaudete!

❒ **El Cafen** mus txapelketak jokatzen dira ortziralero gaueko 10etan.

ASKIN OSTATUA
Bokadillo eta Plater konbinatuak
Elizagibela, Tfnoa: 45 00 52 - DONEZTEBE

Beatriz
ILEAPAINDEGIA
San Miguel, 450922 - DONEZTEBE
❖ Ileapaindegirako ordua eskatu
❖ Solarium-a
❖ kalitateko perfumeak
❖ Bitxitegi fina

Mari Cruz
LENTZERIA
Parrokia 11, Tfnoa: 45 01 12 - DONEZTEBE



AMEZTIA
Jatetxea
Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan
Tf: 450028 - DONEZTEBE



# SAN MARTIN PASATU ETA HURRENGO ORTZIRALEAN

***1984ko ferien kronika 10garren ttipi-ttapan argitaratua***

*Azaroaren 16a da, ortzirala, eta Donezteben udazkeneko feriak ospatu dira. Saltzaileak bezperatik ari dire goiti ta behiti karriketan barna eta aiuntamentuan. Aunitz dire etorri direnak leku hoberena hartzeko asmoarekin, eta horretan, lehenbizi etortzen direnak preferentzia izaten dute. Saltzaileendako postuak Eliza inguruan, Bordatxoko aparkalekuan eta Merkatu Plazan egokitu dira. Metro lineala 400 pzta. ordaindu behar izan dute lehenik Herriko Etxean.*

Ostatuak • Jatetxeak • Ostatuak • Jatetxeak • Ostatuak • Jatetxeak • Ostatuak • Jatetxeak • Ostatuak • Jatetxeak • Ostatuak • Jatetxeak

EZKURRA ERRETEGIA
Txuleta eta bakailuan espezializatua
Merkatarien karrika 31, Tfnoa: 45 00 79 - DONEZTEBE

EL CAFE Ostatua
Pintxoetan espezialitatea
Bokadilloak
Parrokia 3, Tfnoa: 45 03 18 - DONEZTEBE

MAYLIN
Frito eta pintxo beroetan espezialitatea
Parrokia 15, Tfnoa: 45 03 66 - DONEZTEBE

IBAIONDOA OSTATUA
Intzakardi, Tfnoa: 45 01 23 DONEZTEBE

# DONEZTEBEKO FERIAK

## Azaroak 13



*Eskerrak ortziral goizean eguraldi ona egin duen, horrela, jende aunitz bildu baita. Inguruetako herri guzietako jendea ikusten zen eta baita urrunagokoak ere, Gipuzkoarrak, Goizuetarrak, Leitzarrak, Lesakarrak, Beratarrak, Ultzamarrak...*


Urte osoan zure zerbitzura gaude • Urte osoan zure zerbitzura gaude • Urte osoan zure zerbitzura gaude • Urte osoan zure zerbitzura gaude •

# Sampi Aragón




999.000 pzta.

*Ibilgailua eskeintza prezioan*

NIVA. LADA-REN IZARRA.

Tfnoa: 45 03 54 DONEZTEBE | Tfnoa: 58 05 93 ELIZONDO

■ Tailerrak: LEITZAKO BIDEAN (Doneztebe) ■

# DONEZTEBEKO FERIAK

## Azaroak 13

*Azinda parraxta ikusteko aukera izan dugu; esne behi holandesak, betroiak, behigorri pirenaikak, zezen bat. Baita behor, pottoka, asto, mando, ahari, ardi eta zerriak ere. Esnebehi batengatik 210.000 pzta eta bertze batengatik berriz, 190.000 ordaintzera ailegatu ziren. Behor batengatik 150.000 eskatzen zuten baina saldu gabe gelditu zen azkenean. Behorkumeak 60-70.000tan saldu ziren. Ardiak 4 eta 5.000 pzta egin zuten baina gutxi saldu ziren.*




Ostatuak • Jatetxeak • Ostatuak • Jatetxeak • Ostatuak • Jatetxeak • Ostatuak • Jatetxeak • Ostatuak • Jatetxeak • Ostatuak • Jatetxeak

Kaxerna
Parrokia Kalea, 21
Doneztebe.

ANAIAK
TITI BAR
Ameztia 7, Tfnoa: 45 02 71 - DONEZTEBE

AROZENA Ostatua
Besta bezperan: Baztan zopa
Txuri ta beltzak
Gisadoa
Eguzki Eder 3, Tfnoa: 45 04 43 - DONEZTEBE

SHANTI
Ostatua
Ameztia 16
Tfnoa: 45 00 15
DONEZTEBE

## Azaroak 13



*Aurtizko batek 32.000 pztatan ahari bikaina saldu zion Gipuzkoano bati, bertze ahariak 10-15.000tan saldu ziren. Zezen ikusgarri bat ere bazegoen, 700 kilotik gora zuen eta jabeak, Mikel Mindegia aizkolariak, milioi erdia eskatzen zuen, 400.000 eskaini zioten baina ez zuen saldu azkenan.*

Urte osoan zure zerbitzura gaude • Urte osoan zure zerbitzura gaude • Urte osoan zure zerbitzura gaude • Urte osoan zure zerbitzura gaude •

FERIETAN IKUSGAI

STIHL
JOSE LUIS SAN MIGUEL TAILERRA
DONEZTEBE

• **Motozerrak** **STIHL** gama osoa
• **Sasi-kengailuak** edo Desbrozadora
• **Trontzagailuak** edo Tronzadora
• **Hesimozkailua** edo Cortasetos

Rosa Seminario 4 • Tfnoa: 45 01 15 • DONEZTEBE

**STIHL** motozerrak

**ESKAINTZA BAKARRA**
*Motozerrarekin batera erreminta xakutoa* ***debalde***



STIHL 023 41.600Pzta.*
STIHL 034 71.200Pzta.*
STIHL 044 92.800Pzta.*
* IVA barne

LAKANBRA MOTOAK
SALMENTA ETA KONPONKETA
CROSS–TRIAL–ENDURO
MENDI BIZIKLETAK
Parrokia 18, Tfnoa: 45 00 82 - DONEZTEBE

TELLETXEA ALTZARIAK

**Moble erakusketa haundia**

*Zur trinkoa erabiliz*
*Neurrira egindakoak*
*Tapizeriak*

Rosa Seminario z/g
Tfnoa: 45 02 58
DONEZTEBE

# DONEZTEBEKO FERIAK
## Azaroak 13

*Bazegoen klase guzitako jantzirik: galtzak, atorrak, galtzerdiak, zapinak, zapatak, zapatillak... eta baita nekazarientzako erreminta ugari, sukaldeko ontziak, turroiak, egutegiak (Zaragozanoak), erriberaldeko baratxuriak (leku pila batetan), eztia, gaztak, urdaiazpikoak, txorizoak, piperrak, musika kasetak, arrain ontziak beren arrain eta guzti, txoriak kaioletan eta bertze mila gauza...*




Urte osoan zure zerbitzura gaude • Urte osoan zure zerbitzura gaude • Urte osoan zure zerbitzura gaude • Urte osoan zure zerbitzura gaude •

ALBAITERITZA ZENTRU TEKNIKOA
Karrika Nagusia 1, Tfnoa: 45 05 91 - DONEZTEBE

RUIZ OKINDEGIA
Autozerbitzua
Karrika Nagusia 3, Tfnoa: 45 00 37 - DONEZTEBE

HONORIO TABERNA
Emakumezko, gizonezko eta haur arropen Boutique
Merkatariak 29, Tfnoa: 45 01 09 DONEZTEBE

MIGELENA ANAIAK
ERLOJU eta BITXI DENDA
Sukalde eta etxeko tresnak
Ameztia z/g, 45 01 26 - DONEZTEBE

# DONEZTEBEKO FERIAK
## Azaroak 13



*Arratsaldeko 5etan euria hasi zuen eta ondorioz giroa dexente itzali zen. Gauza ederra eta polita da horrenbertze baserritar ikustea, aunitz aspalditik elkarrekin solastu gabeak egonen ziren eta kontu zaharrak kontari eta txikiteatzeko ohitura galdu gabe han ibili ziren. Jazkera berezi xamarra zeramatenak ere bazeuden, txapela eta makila lagun zutela. Aurpegia berriz gorrittua (hemen erraten den bezala, osasunaren seinale).*


Urte osoan zure zerbitzura gaude • Urte osoan zure zerbitzura gaude • Urte osoan zure zerbitzura gaude • Urte osoan zure zerbitzura gaude •

**MAYLIN SPORT**
KIROL ARTIKULUAK ETA GAZTE MODA
Parrokia 15, Tfnoa: 45 02 57 DONEZTEBE

**MARTIN HARATEGIA**
BERTAKO ARETXIAK
Parrokia 1, Tfnoa: 45 01 60 - DONEZTEBE

**VIDEOSON**
**5.000 BIDEO TITULU**
**AZKEN NOBEDADEAK BARNE**
Karrika Nagusia 32, Tfnoa: 45 01 02 • DONEZTEBE

**JUAN J. PIKABEA**
ARROPA KONFEKZIOAK
*Galtza, atorra, jertse, karpa eta larru eta antezko kazadoretan sekulako aukera*
Ameztia z/g, Tfnoa: 45 01 63 DONEZTEBE

*Dena dela, feri honetan zerbaiten falta nabaritu genuen. Urtetik urtera garrantzia galtzen ari duela agerian dago, azinda kontuan benpin, eta hori galtzen bada feri hauek galdu dute bere nortasuna. Hori ikusiz eta egun hau baserritarrentzat berezia denez, zergatik ez antolatu egun hontan ongi pasatzeko bertze lagungarri zerbait? Gustoko ditugu denok bertsolariak, trikitilariak, kordioilariak, aizkora apostuak, pilota partiduak eta antzekoak. Jendea egun pasa etortzen da eta holakoak falta dira feri eguna bikaintzeko.*

***ttipi-ttapa*** 10. zenbakitik hartua, 1984ko abenduan argitaratua.



Urte osoan zure zerbitzura gaude • Urte osoan zure zerbitzura gaude • Urte osoan zure zerbitzura gaude • Urte osoan zure zerbitzura gaude •

Juantxo San Miguel
Kalefakzioa eta argindarra
Iturgintza
Tfnoa: 45 08 66 DONEZTEBE

ALVARO OLAIZOLA
Monte Viejo ardoak eta Keler zerbezak
Edari banatzailea
Karrika Nagusia 13, Tfnoa: 450699 DONEZTEBE

DANIEL ELORZA
Haratégia
Merkatarien karrika 14, Tfnoa: 45 00 40 - DONEZTEBE

DENDA BERRI
AUTOZERBITZUA
Ameztia 5 Tfnoa: 450383
DONEZTEBE

# DONEZTEBEKO FERIAK

## Azaroak 13



Urte osoan zure zerbitzura gaude • Urte osoan zure zerbitzura gaude • Urte osoan zure zerbitzura gaude • Urte osoan zure zerbitzura gaude •

**kontxa** gasolindegia




**SANZ**

**gasoila**

**etxera**

*Deitu*

*450272 edo 450787*

*telefonoetara eta*

*gasoila zure etxera*

*eramanen dizugu*

ITUREN

# Aurtizko bestak hilaren 11tik 15era izanen dira

Hilaren 14ean burutuko da auzoko Herriko Ostatuaren inaugurazio ofiziala

IBAN ISASI

San Martin egunean, **11an**, goizeko 11etan meza, ondotik pilota partiduak, arratsaldean haur jokoak eta ondotik musika Joxeangelekin. **12an** (ortzeguna), herri bazkaria bertsolariekin eta arratsalde eta gauez dantzaldia Joxe Angelekin. Ortziralean, **13**, goizaldeko 2tatik 4etara dantzaldia Iruñea Band-ekin. Larunbata **14ean**, mus txapelketa goizean eta arratsaldez txalaparta, trikitilariak eta gaztain eta artopila jatea sagardoarekin. Gauez Iruñea Band taldearekin dantzaldia.



Igandea 15, goizean pilota partiduak eta bertsolariak eta gauez Larralde Anaiekin dantzaldia.

Bertzalde, azaroaren 14ean burutuko da Aurtizko Herriko Ostatuaren inaugurazio ofiziala.

### Pinu subasta

Ontzalekun pinu enkantea antolatu zuen Udalak. Enkante honetan Maderas Erkizia egur enpresak hartu du pinudi hau 5,2 milioitan.

❐ **Bertso afaria** antolatu da abenduaren 28rako Iturengo Herriko Ostatuan. Xehetasun gehiago hurrengo aleetan emanen dugu.

ZUBIETA

# Asteburu indartsua

Nork dio herrixketan ez dela deus gertatzen?

JUAINAS

Herrixketan kanpotik deus ez dela gertatzen pentsatzea ohizkoa da, ez bait dugu kotxeen burrunba, diskoteken jarana edo laisterketetan ibiltzerik, zertarako? Hori bai, herrietan gertatzen dena... benetan gertatua.

Hemen, hangoaren gisara, kolpeka, bapatean, dena batera suertatzea ematen bait da ere.

### Ezkontza...

Larunbata 31, ostiraleko altxaferoekin hasi zen, dinbi-danbak bete gaua hurrengo egunean Petrixengo Jose Antonio ezkontzen bait zen Iruritan eta iruritar batekin. Zubietarako odol berria. Zorionak.

### ...Afro-dantzariak

Gaua afro-dantzarien txandakoa izan zen. Majo afaldu ondoren gorputzari, hezurrei bakea eman ezinez, Zubieta eta Aurtiz ijijiz bete zutelarik. Euka irakasle brasildarra erdi erdian zen, baimena eskatu omen dute Udalan igandetan segitzeko. Afro-zortzikoa noizko?

### ...eta hil ezkilak

Igandea berriz, hil ezkilekin hasi zen, Serokobordako Pedrok, bereak eginak joana zenaren seinale. Etxekoek eta lagunek, bizi-



lagun eta senideek eman zioten agurra arratsaldean bertan. Biziak darrai.

## GOIZUETA

# Hogeitamar lagun matrikulatu dira euskaltegian

Arrakasta izugarria izan du Euskara Zerbitzuak antolatutako matrikulazio kanpainak

ESTEBAN AROZENA

Euskara Zerbitzuak antolatutako matrikulazio kanpainak erantzun ezin hobea jaso du herritarren aldetik, 30 ikasle izango bait ditu aurten euskaltegiak, hiru taldetan banatu delarik aipaturiko kopurua. Eskolako haurren gurasoek, funtzionariek eta EGA tituloa lortu nahi duten gazteek osatzen dute gehien bat ikasleen zerrenda.



*Ikusmina haundia sortu du aurten ere pilota txapelketak*

### EPA ikastaroa

Bestalde, eta ikastaroekin jarraituz esan, azken urte hauetako antzera adin guztietako 30 emakume bildu direla Jeanne Ireland-en inguruan, oihal eta hari zaharrak erreziklatuz eskulan paregabeak egingo direlarik bertan. EPA izenaz ezagutzen den kurtsilloen barrenean sartzen da aipaturikoa.

### Pilota txapelketaren finalak jokatu ziren

Pilota txapelketaren aurtengo edizioari Urriaren 24ean eman zitzaion bukaera bost kategorietako finalak jokatuz ondorengo emaitza hauekin: **Benjaminak**, Alain Goizueta-Odei Lujanbio 18, Jon Makazaga-Aritz Loiarte 12; **Alebinak**, Zubiri-Perurena 18, Zubiri-Ezeiza 12; **Infantilak**, Aldaia-Barriola 18, Lakuntza-Rodriguez 16; **Kadeteak**, Goñi-Otxandorena 18, Atxa-Olague 13; **Jubenilak**, Olaizola-Berroeta 22, Castro-Beloki 11.

### Mendizaleen komisioa sortu berria da

Herriko mendizaleek komisio bat sortu berria dute, besteak beste Umore Ona elkartea eta Gazte Asanblada ordezkatuak daudelarik bertan.

Aurrera eramango duten egitaraua oraindik zehaztu gabe baldin badago ere, mendi-irtenaldiak, hitzaldiak etabar antolatzeko asmoa azaldu ziguten.

## ARESO

# Santu Guzien Eguna ospatu zen hemen ere

JUANA MARI SAIZAR

Santu Guzien eguna ospatu genuen eta kanposantua oso apaina zegoen, lorez betea. Aresoko hilerria tamainaz dexentea da baina erdi erdian panteon haundi bat dago eta honek toki asko behar du. Orain dela urte batzu jendea hasi zen bere arbasoei hilarri haundi batzu jartzen, baina ohitura honek arazo bat ekartzen du: gero eta lurra gutxiago geratzen ari dela. Aipatu baita ere, kanposantoko alderdi batean lurra mugitzen ari dela zurrumurru bat zabaldu da eta arazo hau konpontzeko nitxoak egitea izango litzateke soluzio eder bat.

❒ **Jostunen** ikastaroa emango duena Mari Carmen aresoarra izango da. Pozten gara ikastaroa berria delako eta lana herritar bati eman diotelako.



❒ **Umeentzako** dantza ikastaroa hasi da. Aurten bi talde egingo dira, bat sei urtetik gorakoei eta bestea 3-4 urtekoei, hau guraso guztiak animatzen badira.

# Eguzkia ailegatu da azaroarekin batera

Nekazariak, gibeleratuak zituzten lanei lotu dira hau aprobetxatuz

JOSEBA

Azaroaren lehen egunetan eguzkia ikusterik ere izan dugu. Hori aprobetxatuz, atzeratutako lanei lotu dira nekazariak. Artoa ensilatzeko prest zegoen duela denbora pixko bat baino, eguraldiaren eraginez, baziren nekazari batzuk oraindik moztu gabe zaukatenak.

## Kiwi produkzio ona

Kiwia ere biltzen ari dira. Aurtengo produkzioa ona izan da. Erran behar urte aunitz joan direla lehenbiziko plantazioa sartu zenetik Baztanen. Hasierako "prebisioak" gehiegizkoak izan ziren, batez ere, frutaren prezioari dagokionean eta gainera ezuste eta ezbehar aunitz jaso izan dituzte kiwi produkzioan buru belarri sartu izan direnak (garai kanpoko izotzak, maneju falta, etabar...) baino azken aldi honetan itxaropentsu agertzen dira etorkizunari begira.

## Artzai bilera

Urriaren 29an artzai bilera izan zen San Martin eskolan. Behiki kooperatiban bitartez bildotsa komerzializatzen duten artzaiak elkartu ziren datorren "kanpainako" bildots prezio eta salmentak bideratzen hasteko.



ONDIKOL

*Zazpirehun pertsona bildu ziren feria egunean herri kirol ikuskizunera*

## Hitzaldia Baztandarra Kooperatiban

Hilaren 3an, behiaren mamitis eritasuna eta ardi esnearen bakteriologiari buruz hitzaldia izan zen Baztandarra kooperatiban.

## Behi esnea

Behi esnearen prezioa bi pezeta gora egin du azken hilabete honetan. Dena den, primak jeitsi eginen dira edo hobeki erranda, grasa eta garbitasuna haundiagoak beharko dira lehenagoko prima jasotzeko.

## Feri euritsuak Elizondon

Jende ugari hurbiltzen ari zenean feria osoa bertan behera joan zen eguerdiko zaparrada dela medio. Ortziralean jendeak alde egin zuen euriaren ondorioz eta azienda eta makinaria erakusketak ez zuten ikusle haundirik izan. Eskeintza eskaera baino haundiagoa zen. Saltzaileak kexu agertzen ziren, aurtengoan jenero gutti erosten zitzaiela eta.

## Hiltegi proiektoa

Hiltegi edo matadero proiektoa bultzatuko du. Baztango Udalak eta estudio teknikoa eta bideragarritasunekoa egiten ari dira dagoeneko. Baztango Udalak Nafarroako Gobernuari hiltegia ehunetik ehunera subentzionatua egitea eskatuko dio. Hiltegi hori, Europako Ekonomi Elkarteak eskatzen dituen baldintzapean eginen litzateke, bertako haragi produkzioaren babesa eta komerzializazioa bideratu nahirik.

## Kirol Mankomunitatea

Eskualde osorako Kirol Mankomunitate bat egin nahi da. Orain arte antolatuta dagoen modura ez du inongo babes juridikorik eta honen bitartez, Nafarroako gobernuarekin konbenioak egiteko ahalbide juridikoa lortu nahi da.

❒ **INEM** erakundearekin sinatutako konbenioaren bitartez Gartzainen apainketak eginen dira.

❒ **Seminario** Serafikoa Udalari eskeini zaio, 77 milioi inguruan.

❒ **Kultur-kirol** batzordekoak abenduko ekitaldiak prestatzen ari dira.

IPINGI
ZATOZ ETA IKUSI
Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO
Eskulangintzarako materialak:
Makrame, eskaiola, 'miga de pan'...

KASINO OSTATUA
Jaime Urrutia 10 - ELIZONDO

## BAZTAN

# Ameriketako bi herriekin anaikidetuko da Baztan

Mexicoko Lagos de Moreno eta Estatu Batuetako Brea herriekin, hain zuzen

JOSEBA

Irailaren azken egunean hasi ziren Baztango ordezkariak, Mexicoko Jalisco eskualdeko Lagos de Moreno eta Estatu Batuetako Californiako Brea herriekin anaikidetzeko solasaldiak. Herri hauetako ordezkariak etorri ziren Balleko Etxera eta Carlos Tarres Breako artistak kuadro bat eskeini zion Balleko Etxeari, bertan Pedro de Ursua baztandar konkistatzaile famatua ("El Dorado" bila joan zena)agertzen delarik.

### Ura hartzeko baimena Narbarteri

Zeberioko errekatik ura hartzeko baimena eman dio Narbarteko kontzejuari Baztango Udalak.

### Zakurra pozoindua

150.000 pezetako indemnizazioa eskatu dio Balleko Etxeari pozoindua agertu zen zakur baten jabeak. Zakurra begiratu ondoren ratizida bortz boltsa zituela barrenean konturatu zen. Jabearen ustez zakurraren balioa haundiagoa bada ere eta heriotza ehizi denboraldia baino lehenxeago gertatu bada ere, kopuru hori eskatu dio indemnizaziotzat Udalari. Udala bere aldetik, desratizazio kanpaina egin duen enpresarekin harremanetan paratu da, neurriak har ditzala eskatuz.



JOXEMANUEL

### Baztango Bertso eskola martxan dago

Baztango Bertso Eskola martxan paratu da dagoeneko, Bittor Elizagoien bertsolari Arraioztarraren ardurapean. Asteazkenero, arratsaldeko 6etan Baztango hogei gaztetxo elkartzen dira Lanbide Eskolan eta bi orduz bertan izaten dira, doinuak, neurriak, rimak eta bertso munduaren inguruko bertze gauzak ikasten.


FERIA EGUNEAN, GAUEZ DISKOTEKA DEBALDE

ORTZIRALA 13
GAUERDITIK GOIZALDERA ARTE

DISKOTEKA:
SARRERA LIBREA

BORDATXO



DANTZALEKUA DONEZTEBE

ZUGARRAMURDI

# Herriko zenbait etxe egoera penagarrian daude



KORO ETA MARGARI

Azaroaren erdian gaudenean Zugarramurditik berri gutti: eguraldia ezin txarragoa, usoak altoegi eta ehiztariak haserre, onddo eskas, iratze lanak akituxeak… eta gutti gehiago.

Bainan berriak ez badire ere, badago zertaz mintzatu: duela hilabete batzuk erran baginuen karriken garbitasunez ez zegoela kexatzekorik, orain kexatzeko arrazoi bat aintzineko aldean paratu behar zauztegu: penagarria den etxe batzuen egoera. Hortxe dugu "Hospitala", Ministerioarena dela, Udaletxearena den, niorrena ez dela eta pittakapittaka desegiten ari dena. Hunen parean "Narkonea" dugu, leihoak zintzilika eta paretak eroriurranak dituelarik.

Bertze batzuk ere badaude kanpoko aldetik hain gaizki ikusten ez direnak bainan urteak eta urteak etsiak daramatela ("Katalenea" eta Curto zenaren etxea). Hor daude berriki etsiak ere "Elixondoa" eta Joxemari eta Eujeñi bizi ziren etxeak.

Kasu batzutan herenzia arazoak direla, bertzetan ez dakit zer dela, bainan jendea etxebizitza ezin bilatu ari denean eta horrengatik herritik kanpo bizi behar duelarik, etxe hauek horrela idukitzea gauza grabea da.


**MENDIALDE Jatetxea**



**Etxeko gasnak saltzen ditugu**

Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan

AMAIUR Tfnoa: 45 30 00

ERLOJU eta BITXI DENDA



**ARRIETA**



KIROL TROFEOAK

Tfnoa.: 580 445 - ELIZONDO

**OSKORRI**

**LIBURUDENDA**

Petrinea Tfnoa.: 592245

ORONOTZ-MUGAIRI

FZ

FOTO ZALDUA

ZURE EZKONTZARAKO

FOTO eta BIDEO

Erreportai on bat

ELIZONDO ☎ 580491

DONEZTEBE ☎ 450364

MARKOEN TAILERRA eta zure karreteak ORDU BATEZ REBELATZEN DITUGU "FUJI" kalitatearekin.

Juan Meoki naiz:

Balin baduzue trasteak etxe barrenean edo ate ondoan eta buruko mine maten badazue hek ikusteak, abiso emanzazue Iruritako telefono hontara

45 20 35

eta kendiko dut gusto ederrean eta ezautzen garelaik seguro nago, zuek eta ni izain garela betiko lagun ederrak.

Zuek hor zate, ni hemen nago. Zuen deia esperuan nago. Biher baino neretako gaur hobiago.

**JATETXEA**

Tfnoa.: 580101

Santiago 1

ELIZONDO

Galarza

FOTO MENA ELIZONDO

*Ezkontzetako erreportaiak argazkiak eta bideoa*

Tfnoa.: 58 01 55 – Santiago 40

ELIZONDO

Eta orain, zure koloretako argazkiak **ORDU BATEZ ERREBELATUAK** ditugu

## URDAZUBI

# Bi herritar hil dira hamabortz egunen barnean

Gazteen besta, bertzalde, Azaroaren 14ean eginen da Indiano-Baitan

ALIZIA OLAIZOLA



*Leorlas auzoko ikuspegia*
ARTXIBOA

Hamabortz egun barne bida hil zaizkigu herrian. Hala gertatu da zoritxarrez, bi gizon hil dira eta biak Leorlas auzokoak. Lehendabizi hil zen, urriaren 12an Ikaburuko Miguel, 67 urte zituenak eta hamabotz egunetara, urriaren 28an hil zen Kikerreneko Juan Irigoien, 78 urte zituenak. Bi gizon hauek egun pare bat bakoitza eri egon ondotik hil ziren.

### Nekazal gestio eta kontabilitate ikastaroa 92-93

Ikastarorat joaten da lagun talde bat herritik. Kurtsillo hau Oronoz Mugairiko San Martin Lanbide eskolan burutzen da. Urriaren 7an hasi ziren eta heldu den urteko maiatzaren 12an bukatuko dute.

### Dantza ikastaroa Saran

Aipatuko dugu baita Sarako Dantza Ikastarorat 'Zazpiak Bat' taldeak konpondurik, herriko lau neska joaten dire ortziralero arratsetan euskal dantzak ikasterat.

### Gazteen besta

Ohitura den bezala azaro alderat hemengo gazteek ospatzen dute besta ttiki bat Indianobaitan afaria eta dantzaldia izanez azaroaren 14ean.


MENDI OSTATUA
Santiago 25 - ☎ 580338
ELIZONDO

BAZTAN FUNERARIA
HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA • TRASLADOAK
Jaime Urrutia 53 ELIZONDO
Tfnoak: 580924-580814-580373

ARLA ARDOTEGIA
Ardo botilatua eta botilatu gabea
Santiago 56, Tfnoa: 45 32 66
ELIZONDO

Eskisaroi jatetxea
Jaime Urrutia, Tfnoa.: 580013
ELIZONDO

ARROPA DENDA
MERCERIA FANTXIKE
JAIME URRUTIA, 24
TFNO. 580312
ELIZONDO

CERVANTES
HELVETIA SEGUROS
Era guzietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia

Beatriz Apaindegia
Espezializatutako zentru akreditatua
Larruazalaren garbiketa, aurpegi eta gorputz tratamenduak, depilazioak, masaiak, sauna eta solarium.
Zatoz eta *"Importancia de tu imagen"* liburua oparituko dizugu
Santiago 53, Tfnoa: 58 02 83 - ELIZONDO

ALKOHOLAREKIN ARAZORIK DAUKAZU?
AGIAN "ALKOHOLIKO ANONIMOAK" LAGUNGU AL DIZU!!
Tfnoa: 24 24 44

## EZKONTZAK

**Esteban Altzuguren Telletxea** eta **Juani Mitxelena Ayoroa**, Bera eta Iturengoa, abuztuaren 15ean.
**Pello Mindegia Erasun** eta **Tere Mitxelena Ayoroa**, Iturengoak, urriaren 17an.
**Antonio Mazizior** eta **Mª Carmen Mitxelena**, Arantza eta Berakoa, urriaren 11an.
**Pedro E. Etxegarai Etxebeste** eta **Ana Mª Elgorriaga Mikelperizena**, Bera eta Lesaka, urriaren 17an.
**Miguel Uriarte Ballarena** eta **Mª Jose Belzunegi Arizmendi**, Erratzu eta Elizondokoa, urriaren 23an.
**Juan Fco. Iparragirre** eta **Begoña Olasagasti**, Arantza eta Etxalarkoa, urriaren 31an.
**Andres Jaurena Azkarraga** eta **Juana Mª Irisarri Cordoba**, Azpilkueta eta Elbetekoa, abuzt. 22an.
**Txaro Jorajuria Mitxeltorena** eta **Jose Ignazio Inda Juanena**, Donamarikoak, abuztuaren 22an.
**Jose Ramon Mindegia Mitxeo** eta **Lourdes Randez Mitxeo**, Oitz eta Bilbokoa, abuztuaren 29an.
**Maite Perurena Loiarte** eta **Jaume Baucis Quer**, Leitza eta Barcelonakoa, urriaren 23an.
**Jesus Mª Etxezarreta Olaizola** eta **Mª Carmen Rezola Zabaleta**, Nuarbe eta Areso, irailaren 26an.
**Jacinto Otxoteko Altzugarai** eta **Rakel Arlegi Goienetxe**, Lesakakoak, urriaren 24ean.

## JAIOTZAK

**Aitziber Gortari Goikoetxea**, Berakoa, irailaren 18an.
**Imanol Endara Irigoien**, Berakoa, urriaren 16an.
**Beñat Gartxitorena Urdanpilleta**, Berroetakoa, urriaren 19an.
**Aritz Juanenea Andiarena**, Saldiaskoa, urriaren 2an.
**Josetxo Ezkurra Arozena**, Doneztebekoa, urriaren 25ean.
**Olaia Olazar Mariezkurrena**, Elgorriagakoa, azaroaren 1ean.
**Mikel Grajirena Oteiza**, Beintza-Labaiengoa, irailaren 4ean.
**Maria Paula Apeztegia Loiarte**, Doneztebekoa, azaroaren 3an.
**Ander Mendiberri Otxandorena**, Donamarian, urriaren 2an.
**Jokin Mariezkurrena Jauregi**, Ezkurran, irailaren 28an.
**Maider Mitxelena Elizondo**, Arantzan, urriaren 25ean.
**Ander Ordoki Aineto**, Lesakan, urriaren 19an.
**Matixa Oteiza Goienetxe**, Lesakan, urriaren 25ean.
**Alexandre Etxeberri**, Saran, urriaren 19an.

## HERIOTZAK

**Fco. Elizagoien Larralde**, Elizondon, urriaren 31an.
**Juan Irigoien Irigoien**, Urdazubin, urriaren 28an, 78 urte.
**Andoni Elosegi Lanz**, Beran, urriaren 31an, 22 urte.
**Pablo Loiarte Eskudero**, Goizuetan, urriaren 22an, 97 urte.
**Martin Goñi Otxandorena**, Beintza-Labaienen, urriaren 21ean, 92 urte.
**Fermin Petrirena Etxebeste**, Arantzam, urriaren 29an, 77 urte.
**Xalbat Sathicq**, Saran, urriaren 21ean, 89 urte.
**Andre Bacquet**, Saran, urriaren 19an, 68 urte.
**Jose Antxordoki Perurena**, Igantzin, urriaren 22an, 84 urte.


**J. M. ANDUEZA IRIARTE**
**Instalazio elektrikoak**

☛ *Sua itzaltzeko tresna guztiak*
- *Mangerak*
- *Extintoreak*
- *Ateak: Rf-30, Rf-60, Rf-90. etab...*

☛ *Alarmak: Suarenak, lapurretarenak...*

Askain Karrika 12 ☎ 630854 - **BERA**



**MALERREKAKO ASISTENTE SOZIALA**

**BERRIRO**
DONEZTEBEKO OSASUN ZENTROAN DAGO, ZENTRO HONETAKO OBRAK BUKATU DIRELA ETA.
Tfnoa: 450300

# Eskualdean osasungintzan ari den langilegoaren hirutik bat erdaldun hutsa da

***Osasunbideak ez du, beraz, «ley del Vascuence» delakoa betetzen, euskaldunok baztertuz***

*Azken hilabeteteotan ugaritu egin dira horrelako berriak gure inguruko herrietan: mediku erdaldunak etortzen dira gaixo edo eri euskaldunak sendatzeko asmoz. Honek bi protesta mota ekarri ditu: Euskararen aldetik, erabaki honekin ez da Nafarroako Gobernuak aprobatutako "Ley del Vascuence" delakoa betetzen, euskaldunak marjinatuz. Gainera, erdara menperatzen ez duten adin sektoreak –adintuak eta haurrak, batez ere– oraindik gehiago baztertzen dira.*

*Bertzalde, osasungintzaren arloan, hain beharrezkoa den komunikazioa –diagnostikoaren %60a solasaldiaren bitartez zehazten omen da, medikuntza testu-liburuen ustez– erdaraz izatera behartzen du, honek gaixoari kalteak sortuz.*



Osasungintzan diharduten 61 langileetatik 24k bakarrik menperatzen dute euskara. Gainontzekoetatik 19 erdaldun hutsak dira eta bertzeak zerbait dakite edo ikasten ari dira Arg.: KARMELE

Arazoa, halere, ez da oraingoa. Urte hasieran, mediku aldaketak egin zirenean, zenbait oposaketa egin ziren mediku postua betetzeko, baina hauetan ez zen euskara ez nahitaezko baldintza bezala ezta kontutan hartzeko meritu bezala hartzen. Honen ondorioz, Goizueta-Aranora Ignacio Yus medikua joan zen, Zubieta-Iturenera Maite Lacalle, biak erdaldunak eta Arantza-Igantzira Aurora Garces, euskara ikasten ari dena.

Egoera honetan, Udal afektatuek zenbait bilera izan zituzten Osasunbidearen ordezkariekin, arazoa konpondu asmoz. Mediku hauek bederatzi hilabetetako ikastaroa egitea erabaki zen, Azpilagainako ikastolan. Baina bortz hilabete bertzerik ez zeramatenean, Osasunbideak euskalduntzerako dirua bukatu zela adierazi zuen. Izan ere, urtean ehundaka milioietako aurrekontua mugitzen duen Osasunbideak 18 milioi bertzerik ez omen ditu euskalduntze lanetarako.

Beraz, ikastaroak bukatu

34. orrialdean segitzen du ☞




| LEKUA | LANPOSTUA | LAN EGOERA | IZENA | EUSKARA MAILA |
|---|---|---|---|---|
| BAZTAN | MEDIKU | KONTRATATUA | Jose Antonio IRURETAGOIENA | EUSKALDUNA |
| BAZTAN | MEDIKU | KONTRATATUA | Mirentxu IBAÑEZ | 0 |
| ARIZKUN | MEDIKU | FINKOA | Miguel YABAR | 0 |
| BAZTAN | MEDIKU | KONTRATATUA | Jesus BARANDIARAN | 0 |
| BAZTAN | MEDIKU | KONTRATATUA | Esteban EZKURDIA | EUSKALDUNA |
| IRURITA | MEDIKU | FINKOA | Manuel AZKONA | 0 |
| MUGAIRI | MEDIKU | FINKOA | Jose Antonio RUBIO | 0 |
| BAZTAN | PEDIATRA | FINKOA | Isabel RUIZ | 0 |
| BAZTAN | ERIZAIN | FINKOA | Ana CARIÑENA | 6 |
| BAZTAN | ERIZAIN | FINKOA | Sagrario BEUNZA | 5 |
| BAZTAN | ERIZAIN | KONTRATATUA | Mª Isabel AZKARATE | EUSKALDUNA |
| IRURITA | ERIZAIN | FINKOA | Mª Josefa IRIGOIEN | EUSKALDUNA |
| MUGAIRI | ERIZAIN | FINKOA | Mª Cruz GOÑI | EUSKALDUNA |
| BAZTAN | ERIZAIN | FINKOA | Isabel ALEMAN | EUSKALDUNA |
| BAZTAN | FISIOTERAPEUTA | FINKOA | Charo OLLETA | 0 |
| BAZTAN | ALBAITARI | KONTRATATUA | Pilar SOTERAS | 1 |
| BAZTAN | ALBAITARI | FINKOA | Manuel BARRON | 0 |
| BAZTAN | ADMINISTRARI | FINKOA | Tere BARDOT | EUSKALDUNA |
| BAZTAN | ZELADORE | FINKOA | Margarita IPARREA | EUSKALDUNA |
| URDAZUBI | MEDIKU | FINKOA | Benedicto AGIRRE | EUSKALDUNA |
| URDAZUBI | MEDIKU | FINKOA | Ignacia ELIZALDE | – |
| URDAZUBI | ERIZAIN | FINKOA | Bernardet MIHURA | EUSKALDUNA |
| LESAKA | MEDIKU | FINKOA | Carlos BOLEA | 0 |
| LESAKA | MEDIKU | FINKOA | Jose Ignacio ARMENDARIZ | 0 |
| ARANTZA | MEDIKU | FINKOA | Aurora GARCES | 4 |
| ETXALAR | MEDIKU | FINKOA | Javier BAIONA | 0 |
| BERA | MEDIKU | FINKOA | Antonio VALDERRABANO | 0 |
| BERA | MEDIKU | FINKOA | Javier GONZALEZ | 0 |
| LESAKA | ERIZAIN | FINKOA | Cristina VALLS | 2 |
| LESAKA | ERIZAIN | FINKOA | Itziar LEONET | EUSKALDUNA |
| LESAKA | ERIZAIN | KONTRATATUA | Mª Jesus MURILLO | 0 |
| ETXALAR | ERIZAIN | FINKOA | Mª Jose INDABURU | EUSKALDUNA |
| ARANTZA | ERIZAIN | FINKOA | Blanca BURUZKO | 4 |
| BERA | ERIZAIN | FINKOA | Lourdes ETXARRI | 0 |
| BERA | ERIZAIN | FINKOA | Maite URKIA | EUSKALDUNA |
| BERA | ERIZAIN | KONTRATATUA | Isabel APEZTEGIA | EUSKALDUNA |
| LESAKA | PEDIATRA | FINKOA | Jose Luis EGUINOA | 0 |
| LESAKA | ALBAITARI | FINKOA | Tomas RUIZ DE GARIBAI | NAHIKO |
| LESAKA | ADMINISTRARI | FINKOA | Mari Jose ESPELOSIN | EUSKALDUNA |
| LESAKA | FISIOTERAPEUTA | KONTRATATUA | Marisol ETXEBERRIA | 4 |
| LESAKA | ZELADORE | KONTRATATUA | Mari Carmen MADARIAGA | EUSKALDUNA |
| DONEZTEBE | MEDIKU | FINKOA | Diego DURAN | 1 |
| DONEZTEBE | MEDIKU | FINKOA | Pilar MARTINEZ | 1 |
| DONEZTEBE | MEDIKU | FINKOA | Mª Teresa LACALLE | 3 |
| DONEZTEBE | MEDIKU | FINKOA | Jaime AGIRRE | ZERBAIT |
| DONEZTEBE | ERIZAIN | FINKOA | Angelines BARBERENA | 2 |
| DONEZTEBE | ERIZAIN | FINKOA | Mª Victoria TELLETXEA | EUSKALDUNA |
| DONEZTEBE | ERIZAIN | FINKOA | Kontxi CALVO | 5 |
| DONEZTEBE | ERIZAIN | FINKOA | Jokin LIZASO | EUSKALDUNA |
| DONEZTEBE | ERIZAIN | FINKOA | Lourdes ENETERREAGA | EUSKALDUNA |
| DONEZTEBE | ALBAITARI | FINKOA | Fernando GABIRIA | 1 |
| DONEZTEBE | ADMINISTRARI | FINKOA | Maria USTARROZ | 0 |
| DONEZTEBE | ADMINISTRARI | KONTRATATUA | Javier ELIZALDE | EUSKALDUNA |
| DONEZTEBE | ZELADORE | KONTRATATUA | Elena ARRIETA | EUSKALDUNA |
| LEITZA | MEDIKU | FINKOA | Roberto OSES | EUSKALDUNA |
| LEITZA | MEDIKU | FINKOA | Luisa GARCIA | 1 |
| LEITZA | ERIZAIN | FINKOA | Maria ARTIEDA | 3 |
| LEITZA | ERIZAIN | KONTRATATUA | Carmen ZUBELDIA | ZERBAIT |
| LEITZA | ADMINISTRARI | KONTRATATUA | Carmen ETXEBERRIA | 3 |
| GOIZUETA | MEDIKU | FINKOA | Carlos YUS | 0 |
| GOIZUETA | ERIZAIN | KONTRATATUA | Cristina URRUTIA | EUSKALDUNA |

gabe eta euskara ongi menperatu gabe hasi behar izan zuten lanean.

Geroztik udal ordezkariak Calixto Ayesa, Nafarroako Gobernuko Osasun kontseilariarekin bildu ziren eta honek ez zuen argibide zehatzik eman arazo honi buruz.

Bertze bilera ere egin behar izan zuten Osasunbidearen zenbait ordezkarirekin eta hauek datorren urteko lehen hiru hilabetetan mediku euskaldunak izanen direla herriotan hitz eman zuten.

### Arazoa bertze herritara zabaldu

Hainbat hilabetetan zehar luzatu zen arazoari irtenbidea eman zitzaiola uste zenean, udan bertze mediku erdaldunak izendatu ziren: Lesakara etorritako bi medikuak erdaldun hutsak dira, Leitzara etorritako bietatik bat bakarra da euskalduna eta Baztanera berririk ez bada etorri ere, aintzinetik dauden gehienak erdaldunak dira. Beraz, herri ttikienetan hasitako arazoa, haundietara ere zabaldu da. Gainera, mediku hauek jadanik lanean hasiak badira ere, Udalek ezin dezakete errekurtsorik sartu oraindik izendapena ez baita ofizialki sartu Nafarroako Boletin Ofizialean.




Doneztebeko Osasun Zentroko hamairu langileetatik bortz euskaldunak dira eta bertze gehienak ikasten ari dira

## Zonako udal gehienetan onartu egin da Osasun kontseilariari igorritako mozioa

*Eremu euskalduneko lanpostu deialdietan euskara derrigorrezkoa izatea eskatzen da*

A.A.

Dagoeneko eskualdeko herri gehienetan onartu da mediku eta Nafar gobernuko bertze funtzionarien euskalduntzeari buruz Osasun kontseilariari igorritako mozioa. Zehazki errateko, Baztan, Bortziriak, Sunbilla, Zubieta, Ituren, Urrotz, Donamaria, Leitza eta Goizuetan onartu da "*eremu euskaldunean Nafarroako Gobernuko departamendu guztiek ateratzen dituzten lanpostuen deialdietarako erizpideak finkatzerakoan, euskaraz jakitea derrigorrez betebeharreko baldintza izan dadila*" eskatzen zuen mozioa. Eraberean, "*Nafarroako Gobernuak, euskararen ezagupena derrigorrezkoa izanen den lanpostuen zerrenda ofiziala finka dezala*" eskatzen da mozioan, puntu hauek lehenbaitlehen bete daitezen beharrezko urratsak eman daitezela gaineratuz.

Donezteben ere, mozio berdintsua onartu zen, baina "Ley del Vascuence" delakoaren 15. artikulua betetzea eskatuz soilik. Artikulu honek dionez, "*Administrazioak zehaztuko du zein lanpostuetarako izanen den nahitaezkoa euskaraz jakitea, eta gainerakoentzat, kontutan hartzeko merezimendutzat hartuko da besteren artean*".



## Euskararen Legea ez da betetzen

Egoera orokorra ere larria da inongo dudarik gabe. Gure herriotan Osasungintzan lanean ari diren hiru pertsonetatik batek ez du euskaraz hitzik egiten eta medikuen kasua aztertzen badugu, kopuru horiek oraindik eskaxagoak dira: eskualdean diharduten hogeitabi medikuetatik lau bakarrik dira euskaraz solasaldi bat egiteko gai.

Egoera zaila herri ttikienetan euskara soilik ezagutzen dutenentzat –adintuak eta haurrak batez ere–, baina baita ere, erdara ezagutu arren, langile publiko batekin euskaraz egiteko **eskubidea** bete nahi duenarentzat.

Izan ere, Lesakako Udalean berriki onartutako mozio batek zioen bezala, "*Osasunbideak guri irri egiteaz gain, «Ley del Vascuence» berari ere irri egiten dio*".

AITOR AROZENA





## ETA ZUK..., ZER DIOZU?

**1.**- Medikua kontratatzeko deialdietan Osasunbideak euskara kontutan ez hartzea zer iruditzen zaizu?

**2.**- Horren ondorioz, mediku erdaldunak izateak zer eragin izan dezake inguruko jendearengan?

**3.**- Honen aurrean, zer egin dezakete Udalek?



JOXEAN IRURETAGOIENA
Elizondoko Medikua

**1.**– Zona hauetan, baldintza bezala hartu behar da euskara: ez dakit zenbat puntuazio eman behar zaion deialdietan, horretan ez naiz sartzen, baina beharrezkoa da euskara kontutan hartzea. Gehiago hartu beharko lukete kontuan, zonalde euskalduna baita.

**2.**– Lehengo pentsamenduan medikua erdalduna bezala ikusten zen, horretara ohituak gaude, baina gaur egun mediku euskaldunak ere badaude, eta hortaz ohartu behar du jendeak. Euskaraz ohitua dagoen jendea erdaraz egin behar izatea, jendea behartzea da eta, noski, horrek zailtasuna suposatzen ditu.



MIGUEL J. LEKUONA
Goizuetako alkatea

**1.**– Oso gaizki. Ez du itxurikan beraiek egindako legeak beraiek puskatzea. Legea berez txarra da eta gainera ez dute betetzen. Azkeneko deialditan ez dute deus exijitu eta gure zonan rekisito izan behar lukeena ez da merito bezala ere kontutan hartzen.

**2.**– Mediku erdalduna ekartzeak beti kaltea badik. Jende euskaldunaren giroa erdalduntzen du eta horrek kaltea ekartzen du.

**3.**– Gauza asko egin daitezke. Lehendabizi, ez onartzea eta gero ahal den presio gehienak egitea. Jendeak kontzientziatu behar du kasu hauetan euskara erabiltzera. Udalek, maixuekin aspaldi egin zutena –euskaldunen lista eta erdaldunen lista– medikuekin ere egitea eskatu dugu eta konpromisoa ere lortu dugu.



DAVID ANAUT
Bortzirietako Euskara Tekn.

**1.**– Alde batetik planifikazio falta argia, eta bestalde euskaldunen eskubideekiko errespetu falta.

**2.**– Medikuak erdaldunak izateak bi ondorio nagusi ditu: alde batetik, erderaz ez dakitenek edo menderatzen ez dutenek ezin dute osasun zerbitzu egokirik jaso. Bestalde, nahiz eta erdaraz jakin euskaraz egin nahi dutenen eskubideak ez dira errespetatzen.

**3.**– Udalak erne egon behar du eta herritarren eskubideak errespeta erazi. Honelako kasuetan, salaketa egin eta legeak ematen dizkion aukerak erabiltzeaz gain, euskara benetan normalizatuko duen plangintza egin dezala eta neurri zehatzak har ditzala eskatu behar dio Nafarroako Gobernuari.

# Mikel Mindegiak lortu zuen Elizondon Nafarroako aizkolarien txapela

*Hamaikagarren aldiz lortzen du txapelketa 43 urtetako zubietar honek*

Mikel Mindegia berrogeitahiru urteko zubietarrak lortu zuen urriaren 30ean, Elizondoko feriekin batera burutu zen Nafarroako lehen mailako aizkolarien hamaikagarren txapela.

Eguraldia kaxkarra izan bazen ere, kirol ikuskizuna bikaina izan zen eta Mindegiak oraindik berari gaina hartzeko moduko aizkolaririk ez dagoela erakutsi zuen. Izan ere, Beran bizi den Donato Larretxea aranztarrak minutu bat eta bortz segundu gehiago behar izan zituen lan bera bukatzeko.

Hirugarrena Etxarri-Aranazko Floren Nazabal gaztea izan zen, 27' 32"ko denborarekin eta laugarren eta bortzgarren postuak bertze bi zubietarrentzat izan ziren: Antonio Jaunarena 31' 55"tan eta Jose Antonio Loiarte, 35' 48"tan.

Modu honetan, Mikel Mindegiak hamaikagarren aldiz eskuratu du Nafarroako txapelketa eta batzuren ustez, historian zehar izandu den nafar aizkolaririk onena da dagoeneko.

Bortz finalistak egin behar izan zuten lana 54, 60 eta 72 ontzatako launa pago enbor moztea izan zen.

Juezak, berriz, Marcos Telletxea, Carlos Marturet, Gabriel Saralegi, Patxi Astibia eta Andoni Irigoien izan ziren.



Mikel Mindegiak eta Donato Larretxeak berdinduak bukatu zuten lehen enborra, baina pixkanaka Mindegia aldea hartzen hasi zen. Halere, seigarren enborrean hogei segundutara hurbildu zen Donato, baina gero, berriz minutu batetik goiti ibili zen Mindegia.
Arg.: ONDIKOL





**Nafarroako Aizkolari txapelketa**

700 ikusle Elizondoko frontoian

| Mikel Mindegia (Zubieta) | Donato Larretxea (Bera) | Floren Nazabal (Etxarri-Aranatz) | Antonio Jaunarena (Zubieta) | J.Antonio Loiarte (Zubieta) |
|---|---|---|---|---|
| 26 minutu 07 sg. | 27 minutu 12 sg. | 27 minutu 32 sg. | 31 minutu 55 sg. | 35 minutu 48 sg. |

LAXOA

# Baztan-Errekako gazteen txapelketan Irurita garaile



Aurtengo Baztan-Errekako Gazteen Laxoa txapelketa Irurita A taldeak irabazi du, Oitzko plazan jokatutako finalean 9-3 jokoz Arraiotzko taldeari gainditu ondoren.

Neurketa honen hasiera nahiko parekatua izan zen. Lehenbiziko bi jokoak Iruritakoek lortu zituzten, baina arraioztarrak bina eta hiruna ere berdindu zuten. Partidua luzea eta borrokatua izanen zela ematen zuen baino ez zen horrelakorik gertatu, txapeldunak bertze sei jokoak jarraian egin zituztelako.

Bi taldeek goi maila erakutsi zuten eta plazara bildu zen jende mordoxkak jokaldi polittak ikusi ahal izan zituen. Dena den, Iruritako Azkarate ezker sakalaria izan zen jokalaririk hoberena. Finalean parte hartu zutenak, Jorge Azkarate, Xabier Ripa, Miguel A. Iñarrea eta Joseba Ripa (Irurita) eta Xabier Karrikaburu, Ion Gamio, Mikel Karrikaburu eta Eneko Etxandi (Arraiotz) izan ziren.

## Hirugarren postua Oitzentzat

Bertzalde, hirugarren postua lortzeko norgehiagokan Oitzek irabazi zion Irurita C taldeari, 9 eta 3 izan zelarik azken emaitza.

Oitzeko taldean Joxe J. Ziganda, Andoni Illarregi, Xabier Ariztegi eta Sergio Fagoagak parte hartu zuten eta Irurita C taldean, berriz, Iñaki Zabaleta, Guillermo Etxenike, Juan J. Santxotena eta Ismael Garatek.

Txapelketaren antolatzaileak gustora gelditu dira eta pilota modalitate zaharrenaren etorkizunaren aintzinean baikor agertu dira. Izan ere txapelketa honetan 30 pilotari gaztek parte hartu dute, 36 partidu osatuz.



# Herri Kirol Federazioaren Asanblea aukeratzeko

***Hauteskundeak izanen dira hilaren 15ean***

Azaroaren 15ean burutuko dira Doneztebeko zineman Nafarroako Herri Kirol Federazioaren Asanblea orokorra aukeratzeko hauteskundeak. Goizeko 11etan, gaur eguneko Zuzendaritza batzordeak egindakoari buruz txosten bat aurkeztuko da, ondotik botazioa eginen delarik eguerdiko ordu batak arte.

30 kidez osatuta egonen den Asanblada Orokorra aukeratu ondoren, fitxa kopuruaren arabera, federazioko lehendakari izateko kandidaturak aurkezteko epea irekiko da. Kandidatura bat baino gehiago egonen balitz, asanbleako kideek bertze botazio batekin aukeratuko dute lehendakaria berria abenduaren 6ean.

# Hamabostaldiko jokaldiak



**Mikel Mindegia** aizkolari zubietarra.

Ez da lehendabiziko aldia sail honetan agertzen dena, eta seguraski ez da azkena ere izanen. 43 urterekin hamekagarren aldiz lortu du Nafarroako txapelketa eta sasoi haundian dago.



**Mendiko** pistetan dabiltzan «motocross-eroak».

Udalek aspaldi agertu zuten arazo honekin bukatzeko plangintza baten beharra baina oraindik mendian barrena hainbat motozale ikus ditzazkegu inongo kontrolik gabe.

# MERKATU TTIKIA

## Etxebizitzak

• **Baserri** edo borda alokatuko genuke eskualdean. ☎ 450769.

• **Beran** pisua salgai. ☎ 630637.

• **Leitzan** pisu amueblatua salgai. ☎ 510500.

## Lana

• **Beran edo Lesakan** lan eginen nuke, haurrak zaintzen edota etxeko lanetan. ☎ 637911 (Edurne).

• **Elizondoko** neska asteburuetan lan egiteko prest dago; haurrak zaintzen, etxeko lanetan, edota komertzio batean (Elizondon). ☎ 580398 (Rakel).

• **Hondarribian** 20 urtetik gorako neska interna behar dut. Haurra zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. ☎ 943-643605

## Salerosketak

• **«Nintendo»** bideo-jokoa eta 'Mario Gros' salgai. 17.000 pzta. ☎ 637372.

• **700** akazia pikete salgai. ☎ 635218 (7etatik aintzinera).

• **Lokal** bat salgai Berako San Esteban 37an. 70 $m^2$ + 40 $m^2$ sotanoan. Norbaitek denda edo bulegoa montatzeko nahiko balu, dena prest du. ☎ 630970.

• **Artzai-txakurkumeak**, euskal arrazakoak salgai. ☎ 604624 .

• **Esne-tankea** berri berria salgai. ☎ 510498.

• **Egurrezko** sukaldea salgai 'Dietrich' markakoa, 60 zmtakoa. Bigarren eskukoa bainan egoera onean eta merke. ☎ 637780 (eguerditan).

• **Ordenadoreak** salgai, AT 286, 386, 486. Konfigurazio bereziak. ☎ 637064 J. Javier. (6etatik aintzinera).

• **Honda** 600 Trail eta kitarrarentzat 100 Wko. anplifikadorea ☎ 630922. Jabier.

• **Artzai** zakurkumeak saltzen ditut. ☎ 504492.

• **FIAT traktorea**, 50 CVkoa salgai. Lau ruedetan trakzioduna. Egoera onean. ☎ 450474.

• **Honda** 250 CR Cross motoa salgai, 88koa. Gutti ibilia eta merkea. ☎ 452027.

• **Bigarren** eskuko bizikleta estatika bat erosiko nuke. ☎ 510405. Mari Joxe.

• **Sukalde** kalefaktorea salgai. ☎ 630562.

• **15 betizu** salgai. ☎ 514162.

• **Rieju** MR 80E motoa salgai, egoera onean eta merkea. ☎ 637214.

• **Razesa** karrera txirrindula haundia salgai. ☎ 637337.

• **Egurrezko** kalefakizoa bigarren eskukoa eta akumuladore berria salgai. ☎ 635025.

• **Amasadora** erosiko nuke, bigarren eskukoa. ☎ 450945.

## Denetarik

• **Lesakan** ingeles klaseak emanen nituzke. ☎ 637940.

• **Belarritako** bat galdu dut Etxalarko Usategietako Jatetxearen inguruan urriaren 11an. Norbaitek aurkitu badu, deitu. ☎ 450029.

• **Etxeak** kanpotik eta barnetik pintatzen ditut. ☎ 453245.

• **Etxeko** zakur bat erregalatuko nuke. ☎ 450773 (gauez).

## Harremanak

• **Leitzako** adoleszenteei, kontuz azkarregi hazten ari zarete, neska batzuren partez.

• **Zorionak** Arraiozko Miryam Zelaietari zure 19 urtebetetze egunean (urriak 26), zure bi lagunen partez.

• **Elizondoko** Maxus Goñi Otxandorenari: zorionak zure urtebetetze egunean (azaroak 9), ongi pasa eta segi orain bezain alaitsu eta ero. Gu.

• **Leitzako** lagunkentzaileei: Ez uste prest gaudela gure betiko lagunak galtzeko. Leitzako anonimak.

• **Goizuetako** Juan Loiarte zoriondu nahi nuke, bere amona Milagrosen partetik.

• **Eratsungo** Juanjori: zorionak azkenean soldaduska bukatu duzulako. Afarian denak oso ongi pasatzea espero dugu. Leitzako lagunak.

• **Pena** bada ere halako kazetari bat gabe gelditzea, gogotik eskertzen dizugu egin duzun lanarengatik. Ondo izan Antton. "Patxi".


ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua: ..............................

*ttipi-ttapa*

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

*ttipi-ttapa* ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK ..............................

HELBIDEA ..............................

HERRIA .................. Tfnoa: ..................

*ttipi-ttapa*

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

# KOLORETAKO ERREGALOAK!!

KOLORETAKO
PHILIPS TBa
«mando a distancia»rekin



Hastekoz

## DEBALDE

TELEBISTA BAT edozein

## RENAULT *

modelo erosteagatik

* Stock-ean dauden ibilgailuak

Eta gainera

## BALDINTZA
## EZIN HOBEAGOTAN

*Zatoz zurearen bila*

AZAROA-ABENDURAKO
ESKEINTZA

ZURE BEHARREN ARABERAKO
FINANTZIAZIOA ESKAINTZEN DIZUGU

**RENAULT**
Sarea

- **Baztan**: P. Garmendia – Elizondo
- **Malerreka**: Talleres Santesteban – Doneztebe
- **Bortziriak**: Semper Anaiak – Bera

**SUKALDEAK** **ERAKUSKETA ZABALA**

**BAINUAK** ESKEINTZA BEREZIAK

*ARMARIO ENPOTRATUAK*

- Moble lakatua 80koa
- Marmolezko entzimera
- Lababo mobledunak
- Ispilua aplikearekin 80 x 110

**47.400 pztatik aintzinera**
**(montaia eta IVA barne)**

ESKEINTZAK

MOBLEAK AMETS

Bidasoa, 45, 60
☎ 630537, 631443 - **BERA**

**Manpara plegablea**

**32.000 pzta**
**Montaia eta IVA barne**

**SIMMONS**
**KOLTXOIAK**

Arazoak bizkarrekoak direnean

**KOLTXOIA**
(5 urtetako garantia)

ESKEINTZA PREZIOA eta
LAMINA SOMIER BAT OPARITZAT





**ZURE BAINURAKO BEHAR DUZUN GUZTIA:**

- ✗ MOBLEAK
- ✗ GRIFERIAK
- ✗ MANPARAK
- ✗ AZULEJOAK
- ✗ SANITARIOAK
- ✗ OSAGARRIAK

*Presupuestoak Konpromisorik gabe*

**ALMACENES ETXANIZ, S.A.**

Lesakako Iturria anaiak

**AZAROAN ESKAINTZA**
**BEREZIAK MOBLETAN**

*Nahi izanez gero,*
*instalazioaz arduratzen gara.*
*Eskatu baldintzak*

**Juan Arana, 3**
**Tfnoa eta faxa:**
**(943) 61 17 67**
**IRUN**